

1. Paulok, hilean, 1.820 euro irabazten ditu; Pellok, halako bi; eta Emiliok, halako hiru.

Zenbat irabazten dute hiruren artean?



2. Manuk 12 uraza bildu ditu, eta 4 kutxatan banatu nahi ditu, denetan kopuru bera izateko moduan.

Zenbat uraza jarri behar ditu bakoitzean?

Zenbat uraza gelditzen dira sobera?



X 12



X 4

3. Danik teniseko 34 pilota ditu, eta 8 pototan sartu nahi ditu, denetan kopuru berdina izateko moduan.

Zenbat pilota jarri behar ditu poto bakoitzean?

Zenbat pilota geratzen dira sobera?



X 34




X 8

4. Tren batean 423 bidaiari doaz, 9 bagoitan.



Zenbat bidaiari daude bagoi bakoitzean, denetan bidaiari kopuru bera badago?

5. Patata hauek guztiak 8 kutxatan banatuz gero, zenbat patata izango ditu kutxa bakoitzak?



6.



Zenbat balio dute 1 zenbakiko 25 menuk?

Jonek eta adiskideek 2 zenbakiko 12 menu eskatu dituzte,
eta Josuk eta adiskideek, berriz, 4 zenbakiko 8 menu.

Zenbat ordaindu dute Jonek eta adiskideek?

Zenbat ordaindu dute Josul eta adiskideek?

Sofiak, lagun batek eta bi semek menu bera eskatu dute,
eta 32€ ordaindu dute.

Zenbat ordaindu du bakoitzak?

Zer menu izan da?

Atzo, menu hauek zerbitzatu zituzten jatetxean: 1
zenbakiko 13 menu; 2 zenbakiko 15; 3 zenbakiko 8; eta 4
zenbakiko 9.

Zenbat diru bildu zuten?

7. Liburutegian, Ainhoak 7 apaletan jarri behar ditu 694 liburu,
denetan kopuru bera izateko moduan.

Zenbat liburu jarri behar ditu bakoitzean?

Zenbat geratuko dira sobera?



8. Mirarik 512 litro freskagarri banatu behar ditu 2na litroko
botilatan.

Zenbat botila beteko ditu?

